

**ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA**

ikastetxea:	IKASBIDEA IKASTOLA IPI	kodea:	010012
etapa:	BATXILERGOA	zikloa/maila:	1. MAILA
arloa/irakasgaia:	MARRAZKETA ARTISTIKOA I		
diziplina barruko oinarrizko kompetentzia elkartuak	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK: <ol style="list-style-type: none">1. Marrazketa ezagutza, komunikazio eta adierazpen tresna moduan ulertzea, sortzen duen esanahien aniztasuna kultura eta arte aberastasunaren iturri lez baloratuz eta jakin-mina, errespetua eta irizpide propioa erakutsiz, hainbat proposamen plastikotanirudikapen-aniztasuna balioesteko eta haren kontserbazioa sustatzeko.2. Askotariko ekoizpen plastikoak jarrera ireki, kritiko eta gogoetatsuz aztertzea, horietan dauden hizkuntza, teknikak, prozedurak, funtzio esanguratsua eta adierazkortasuna ezagutzuz, prestakuntza artistikoa zabaltzeko, ikusizko kontzientzia hartzeko eta plazer estetikoa garatzeko.3. Marrazketa eta honen tresnak eta hizkuntzak erabiltzea, errealitatea aztertuz, interpretatuz eta ulertuz, honen irudikapen grafiko objektiboa eta adierazkorra bultzatzeko, sentsibilitatea, irudimena eta sormena sustatzeko, eta hazkunde pertsonala eta artistikoa bultzatzeko.4. Material, teknika eta euskarri desberdinekin modu irudimentsu, berritzaile eta arakatzailan esperimentatzea, norberaren gorputza barne, proposamen artistiko garaikideetan duen garrantzia aztertuz, marrazketaren keinua eta espazioaren jabetzea norberaren onarpenerako eta adierazpen bide bezala aurkitzeko.5. Praktika artistikoa adierazpen moduan balioestea, kultura-erreferenteak jarrera ireki eta aktiboz ikertuz, sorkuntza berrien berezko zatil bezala, kultura-identitateak ekoizpenen aberastasun gisa duen garrantzia balioesteko.6. Ekoizpen grafiko adierazkorrak eta sortzaileak egitea, hizkuntza grafikoaren elementuek eta haien antolamenduak estilo pertsonal baten definizioan duten garrantzia baloratuz, eta lanean ahalegina eta jarraitutasuna erakutsiz, beren ekoizpenen komunikazio eta adierazpen ezaugarrietan aurrera egiteko, eta trazu eta keinu pertsonala lortzeko.7. Marrazketako berezko teknikak, tradizionalak zein digitalak, ezagutzea eta horiekin esperimentatzea, beharrezko tresnak, bitartekoak, euskarriak eta aurretiko trebetasunak identifikatuz, eta horiek erabiltzean pentsamendu dibergentea garatuz, ekoizpen grafikoak egitean modu arduratsuan, berritzailean, iraunkorrean eta sortzailean integratzeko.8. Eskuratutako ezagutzak eta trebetasunak aberastea, akatsa hobetzeko eta ikasteko modutzat hartuz, oroimena eta oroitzapen bisuala garatuz, irudikapen grafikoko erronka berriei sormenez eta eraginkortasunez erantzuteko.9. Proiektu grafiko kolaboratiboak sortzea, diseinua eta prozesua planteatutako diziplinaren berezko beharretara egokituz, eta modu arduratsuan, sortzailean, jarrera positiboarekin eta errespetuarekin lagunduz haren plangintzan eta hura gauzatzean, balizko erronka profesionaleri segurtasun handiagoz aurre egiteko eta proposamen horiek dakarten aberastasuna balioesteko.		
irakasleak:	Begoña Díez Martínez	ikasturtea:	2022-2023



Helburuak

1.helburua

Marrazketa artistikoak gizabanakoen eta gizarteen bizitzako oso arlo desberdinetan —artearen eta teknikan, adibidez— izan duen eta duen garrantzia eta funtzioak aintzat hartzea eta hizkuntza objektibo eta unibertsala dela konturatzeko, informazioa ulertu, aztertu eta aditzera emateko garaian marrazketa artistikoak duen eginkizunaz jabetzeko.

2.helburua

Marrazketa artistikoari dagozkion terminologia eta lexiko bereziak ezagutzea eta marrazketa tresnak trebetasunez erabiltzea, gure lanaren berri emateko eta aukeratutako soluzioak arrazoiatzeko, horren bidez marrazketa prozeduren gaineko ezaupide gehiago eskuratzearren eta gure elkarrizketak aberastearren.

3.helburua

Gizakion bi burmuinaldeen arteko funtzio ezberdinak ezagutzea eta eskumaldeko parteak arlo artistikoan eskaintzen duen potentziala erabiltzen ikastea.

4.helburua

Marazkien oinarriko estruktura eta forma sinplifikatuaren garrantzia ulertzea eta ezagutzea.

5.helburua

Marrazterakoan proportzioak duen garrantziaz jabetzea. Honek zer nolako pisua duen marrazki bat baliogarria ala baliogabea izateko, ulertzea.

6.helburua

Irudikapen batean argi-itzalen baloreak eskaintzen duen bolumen ilusioaren pisua ezagutzea.

MARRAZKETA ARTISTIKOA I

Edukiak	Ebaluazio-irizpideak	Ebaluazio adierazleak
I. MULTZOA: MULTZO GUZTIEN EDUKI KOMUNAK		
<ul style="list-style-type: none">○ Ikusten ikasi: Ikusten dugunaren perzeptzioaz jabetzea, objektibitatea eta subjektibitatea ezberdinduz.○ Konposizioa: Formen arteko erlazioak. Konposizio lege nagusia: oreka, pisua eta norabidea. Simetria	<ol style="list-style-type: none">1. Ikasgaiaren beraren lexikoa eta terminologia egoki erabiltzea, bai eta tresnak eta prozedurak ere, ideiak eta informazioak zuzen jakinarazi eta interpretatzeko.2. Marrazketa artistikoko prozedurei eta baliabide grafikoei buruzko ezagutzak aplikatzea, lan-	<ol style="list-style-type: none">1. Marrazketak, deskribatzeko eta irudikatze zenbat bide ematen dizkigun onartu eta balioesten ditu.2. Artearen eta errealitatearen formen, geometriaren, egituraren eta itxuraren ezaugarri bereizgarriak kontzienteki identifikatzen ditu.



<ul style="list-style-type: none">eta asimetria. Proportzionaltasuna. Erritmoa.○ Kolorea: kolorearen pertzepzioa, psikologia eta semantika.○ Nola aterarazi barruan dugun artista hori.	proiektuak egoki bukatuta eta aurkeztuta egon daitezten.	3. Artean eta errealitatean irudikapenean konposizioa, itzalak eta kolorea erabiltzeak zer aukera ematen dituen ulertzen du eta bere ekoizpenetan aplikatzen ditu.
II. MULTZOA: ESKUMALDEKO BURMUINALDEAREKIN MARRAZTEN IKASTEA		
<ul style="list-style-type: none">○ marrazki simetrikoak,○ norabidez aldatutako marrazkiak (buruz beherakoak)○ Espazio negatiboak aztertzea eta marraztea○ paperari begiratu gabeko marrazkiak○ Nola aterarazi barruan dugun artista hori.	1. Eskumaldeko burmuinaldeak arlo artistikoan eskaintzen dituen abantailak proposatutako marrazkietan aplikatzea.	1. Eskumaldeko burmuinaldearen pertzepzioak kontzienteki erabiltzeak hobeto marrazten laguntzen duela barneratu du.
III. MULTZOA: GIZA GORPUTZA, PROPORZIOAK, ESTRUKTURAZIOA ETA KONFIGURAZIOA 1		
<ul style="list-style-type: none">○ Gorputzaren proportzioak egilearen adinaren arabera, irudikatuaren adinaren arabera, ikuspuntua, posizioa. Karrikatura.○ Argi-itzalen balorea, teknikak.○ Nola aterarazi barruan dugun artista hori.	<ol style="list-style-type: none">1. Pertsonak eta erretratoak marraztean, proportzioak eta oinarrizko estruktura oso lagungarriak direla ulertzea eta erabiltzea.2. Argi-itzalak erabiltzea marrazkiei bolumena eta joku espazialaz aberazteko.	<ol style="list-style-type: none">1. Errealitatearen forma geometrikoen egitura eta itxuraren ezaugarri bereizgarriak kontzienteki identifikatzen ditu.2. Pertsonak grafikoki irudikatzen ditu, gorputzak zein erretratuak, egiturazko antolamendua argi zehaztuz.
IV. MULTZOA: ANIMALIEN ETA LANDAREN ETA NATURAREN MARRAZKIAK, ESTRUKTURAZIOA ETA KONFIGURAZIOA 2		
<ul style="list-style-type: none">○ Espezie ezberdinetako animalien estudioak eta marrazkiak.○ Landareak, natura estudioak.○ Paisaiak.○ Nola aterarazi barruan dugun artista hori.	<ol style="list-style-type: none">1. Animalien eta landareen marrazkiak egiterakoan, espezie bakoitzak duen estruktura kontuan hartzea.2. Paisai bakoitzak dituen bereizitasunaz jabetzea.	1. Animaliak, landareak eta paisaiak grafikoki irudikatzen ditu, egiturazko antolamendua argi zehaztuz, osagai formalen arteko proportzioei begiratuz eta haien arteko materialiazko eta azaleko izaera interpretatuz.
V. MULTZOA: OBJEKUEN MARRAZKIAK, ESTRUKTURAZIOA ETA KONFIGURAZIOA 3		
<ul style="list-style-type: none">○ Objektuen marrazketa analitikoak.	1. Espazioan dauden objektuak marrazteko	1. Objektuak eta formak grafikoki irudikatzen ditu,



<ul style="list-style-type: none">○ Perspektiba: objektuak irudikatzeko sistema ezberdinetan ikuspuntuaren eta helburuaren arabera.○ Nola aterarazi barruan dugun artista hori: zer adierazi nahi dugun eta nola adierazi.	<p>perspektiba axonometrikoa, esku hutzez, erabiltzea.</p> <p>2. Ikasleak bere adierazpen artistikoa garatzea, bere gogoeta eta emozioak espresatzea.</p>	<p>egiturazko estruktura kontuan izanik.</p> <p>2. Espazioan dauden objektuak marrazteko perspektiba erabiltzen du.</p> <p>3. Ikasleak bere adierazpen artistikoa garatu du, bere gogoeta eta emozioak espresatzen ditu.</p>
---	---	--

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta ...].

MARRAZKETA ARTISTIKOA I

1.EBALUAZIOA

Ikusten ikasi: Ikusten dugunaren perzeptzioaz jabetzea, objektibitatea eta subjektibitatea ezberdinduz.

ESKUMALDEKO BURMUINALDEAREKIN MARRAZTEN IKASTE: marrazki simetrikoak, norabidez aldatutako marrazkiak (buruz beherakoak), Espazio negatiboak aztertzea eta marraztea, paperari begiratu gabeko marrazkiak. Nola aterarazi barruan dugun artista hori.

2.EBALUAZIOA

GIZA GORPUTZA, PROPORZIOAK. Gorputzaren proportzioak egilearen adinaren arabera, irudikatuaren adinaren arabera, ikuspuntua, posizioa. Karikatura.

Argi-itzalen balorea, teknikak. Nola aterarazi barruan dugun artista hori. **ANIMALIEN ETA LANDARE ETA NATURAREN MARRAZKIAK.** Espezie ezberdinetako animalien estudioak eta marrazkiak. Landareak, natura estudioak. Paisaiak. Nola aterarazi barruan dugun artista hori.

3.EBALUAZIOA

OBJEKTUEN MARRAZKIAK. Objektuen marrazketa analitiko. Perspektiba: objektuak irudikatzeko sistema ezberdinetan ikuspuntuaren eta helburuaren arabera.

Nola aterarazi barruan dugun artista hori: zer adierazi nahi dugun eta nola adierazi.



METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna ... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGIA

Irakasleak azalpenak emango ditu behar den guztietan, adibide grafikoaz baliatuz. Sarbide ariketak egin ondoren, marrazki landuagoak eta pertsonalagoak egingo ditu ikasleak.

Eredu grafikoak paperean eta pantailan izango ditugu, ahal den guztietan presentzialak ere, erabiliko dira.

Ikasleak marrazten duen bitartean, irakasleak lagunduko dio eta zalantzak argitzen saiatuko da.

EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]

KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]

EBALUAIO TRESNAK

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

Eredu naturalen eta artifizialen errepresentazioa.

Klasean landutako errepresentazioen inguruko azterketa.

Material, euskarri, tresneria eta lan denboraren kudeaketa.

Lanerako jarrera, asistentzia, klasearen aprobetxamendua.

Euskararen erabilera.

- Behar edo eskakizun jakin batzuen, mezuak ekoizteko prozesuak transmititzen ditu, terminologia espezifikoa erabiliz.
- Errealitateen formen geometriaren, egituraren eta itxuraren ezaugarri bereizgarriak kontzienteki identifikatzen ditu.
- Marrazketak, deskribatzeko eta irudikatzeko zenbat bide ematen dizkigun onartu eta balioesten ditu.
- Artean eta errealitatean formen geometriaren, egituraren eta itxuraren ezaugarri bereizgarriak kontzienteki identifikatzen ditu.
- Artean eta errealitatearen irudikapenean kolorea erabiltzeak zer aukera ematen dituen ulertzen du eta bere ekoizpenetan aplikatzen ditu.
- Objektuak eta formak grafikoki irudikatzen ditu, egiturazko antolamendua argi zehatzuz, osagai formalen arteko proportzioei begiratuz eta haien materiazko eta azaleko izaera interpretatuz.

Errepresentazioak (ereduena eta sortutakoarena): %60

Material, euskarri, tresneria eta lan denboraren kudeaketa: %20

Lanerako jarrera, interesa, aprobetxamendua, euskararen erabilera: %20



EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].

Ebaluazioa jarraitua da. Azkeneko ebaluazioa gainditzen ez duenak nahikotasun probara aurkeztu beharko du. Horrez gain, gaizki egindako lanak edo egin gabekoak entregatu beharko ditu jakinarazitako datan.

OHIKOAN ETA EZ-OHIKOAN: Azterketa zehatza jarriko da: ariketa bakoitzaren balioa jarrita. Zuzenketan argi agertuko da zer dagoen gaizki eta zer falta den. Zehaztuko da ariketa bakoitzean ateratako nota.

*EZ-OHIKOAN gainditzekotan, **NAHIKO – 5** izango da notarik altuena.